

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Aukeran nahiago bestela



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Akaso

JUAN GARZIA GARMENDIA

Erein, 1987

Ez dut ukatuko: Gorka Bereziartuak aipatu zuenetik, jada 2008 urrun hartan, nobedade ez diren literatur lanak hartzen dituen tarte hau abiatzeko, irakurketa maiteen artean izan dut Juan Garzia Garmendiaren *Itzalen itzal*. Pentsa, manifestazio bat antolatuko balitz, eta Bereziartuaren atxikimenduaz gainera, neronek ere sinatuko nuke Garziak berriro idatz dezan –1995ean *Fadoa Coimbran* eleberria argitaratu ondotik ez du fikziozko libururik atera–.

Broma-edo aurretik zetorren, ordea. Elkarriketa gogoangarri batean –esaten zituenengatik, baina galdetzen zizkioten kontu batzuei iskin egiteko abileziagatik ere bai–, “Euskal Bartleby bat bihurtu ote zara?” galde-tu zioten Volgako Batelariak. Erantzuna izan zen: “Zer pintatzen dut (edo nuke) oraingo euskal literaturan? Ez da manifestaziorik antolatu, behintzat, nik dakidala, idaztera itzul nadin. Konformatzen naiz haren leloa euskaratu izanarekin: ‘Aukeran nahiago ez’”.

Obra laburreko autore, bederen, honezkero aipatu dizkiogun bi liburuez gain, badu beste bat, aurrekaria, estreinakoa: *Akaso*. Ipuin liburua, guztira lau, tartean Ignacio Aldecoa saridun *Pernixio* luzea, gehi Anjel Lertxundi-ren hitzaurrea, gehi egilearen beraren epilogo. Aipatu elkarrizketan Garziak: “*Akasoko* pieza gehienak hor abiatu ziren, gaxtekeria eta guzti: aiton-amonen ipuin-munduaren hustmina, eskolako fraideekiko kontu-kitatze saioa”. Bigarren taldekoa litzateke, ale bakar, *Bele jolasak* izenekoa. Gainontzekoak, gutxi asko, bestekoak, nahiz *Petiri-landako kuso*a gehiago izan Lertxundik aipatzen zuen “ahozko tradizio narratiboa jaso eta literarioki

taxutu” horietakoa. Labur: lau ipuinek dutela nork bere izaera eta nortasuna.

Xabier Mendiguren Elizegik egin zion kritika bakana, agerkari honetantxe: “Ipuin liburua dugu hau, eta ona gainera. Oso ona ere esango genuke”. Tranpa da, baina gero-ra *Itzalen itzal* etorri dela ikusita, iruzkina iruditzen zait ausartegia. Esan nahi dut, bigarrenarekin puskaz gainditu zuela lehen-bizikoa. Gainera, ondoen jartzen ditu lehen multzoko ipuinak. Eta *Bele jolasak* izenekoaz esan zuen: “Pretentsio haundiak dituen arren –edo beharbada horrexegatik– ez zait iruditzen guztiz ondo gauzatu dituenik”. Niri, aldiz, ipuin horixe egin zait, beste ohikoa-goan artean, nabarmengarriena. Aldrebese-na, bai, baina ondorioz interesgarriena. Bi aldiz irakurri behar izan dudana bakarra; eta, segur aski, bi aldiz irakurtzeak pereza emango ez lidakeen bakarra.

Mendigurenek, 1988an: “Juan Garziak narraziogintzan segituko duelako esperantzan geratzen gara beraz”. Urteak pasa dira, baina esperantza ez da galdu. Manifestazio bat antolatu behar badugu ere. Nahiz, aukeran nahiago bestela. ■



Juan Garzia